

## LUMA BERRIEN AZTARNAK

# Erabakia

Leire ZUBELDIA

**G**aur ere ez du etxean lo egin. Gauez lan egiten duen enegarren aldia da. Gehiegi, begiondorik gabe etxeratzeko. Sinesten jarraitu nahi du, baina senak ez dio uzten.

Lanera garaiz iritsi eta lasai ibili nahi bado, berehala jaiki beharra dauka. Nahiago du ordea, gosariari muzin egin, eta Markel desegin gabe utzi duen ohe zatiari begira geratu, bost minutuz bada ere. Pentsatzen zuen bezala, mugikorrek jo du.

*Gaur ere bulegoan. Ez etxean itxaron, ordu pare bat barru joango naiz. Lo kuluxka egin eta berriro lanera. Gauera arte. MZ.*

Iritsitako mezuen zerrenda erreparatzen hasi da. Azkeneko hiru mezuak Markelenak dira. Hirurak oso antzekoak. Bana bana irakurri eta ezabatu egin ditu. Laugarren mezua duela ia aste bat bidali zion ahizpak. *Ama kezkatuta dago. Aspaldian ez zara bera ikustera joan. Non zabil-tza?* Ezabatu egin du hau ere. Laguna, kafea hartzeko hitzordua jarritz; lankidea, lanera beranduago iritsiko dela abisatuz; telefono konpainiako publizitatea... Mezu guztiak desagerrarazi ditu. Bakar bat utzi du zerrendan:

*Zure ondoan zahartu nahi dut. Elkarrekin biziko gara?*

Markelek bidali zion mezua, duela bi urte edo. Mugikorreko botoitxoei telefono agendara joateko agindu die. "Ane lana" agertu zaio pantailan eta botoi berdeari sakatu dio.

—Ane... Ez nago ondo eta ohean geratuko naiz... Ez dakit, gripea edo... Moldatuko zarete ni gabe, ezta?... Benga guapa... Muxu bat!

Mugikorra mesanotxean utzi eta maindireak lepondora ekarritik logelako atera begira jarri da. Erabakita dauka. Gaur Markeli esango dio, badakiela gaur gaua ez duela bulegoan lanean pasa, beste emakume batekin egoten dela, eta ez duela gehiago engainatuko. Mutil lagunari esango dizkion esaldiak osatzen ari da. Elkarrizketa osatu du hasieratik bukaeraraino, Markelen erantzunak irudikatuz. Behin eta berriz egin du ariketa bera, eta horretan ari dela, minutuak nahi gabe pasa zaizkio. Zerrailaren hotsak ohartarazi du denboraren iraganaz. Txistua irentsi du, eta erabakia berretsi dio bere buruari Markelen harridurazko aurpegia ikusi duenean.

—Hara! Laztana, gaixorik al zaude?

—Ez noa lanera. Jota nago.


—Sukarra daukazu? Lo pixka bat egiteak on egingo dizu orduan. Ni ere nekatuta nago. Gaua luzea izan da.

—Markel, aurretik hitz egin beharra daukagu!

—Gero, bai laztana?

Markelek hogeita hamar segundu eskas behar izan ditu arropa erantzi, ohean sartu eta hizketarako gogoz dagoen neskalaguna musu batez siltzeko. Elkarrizketaren lehenengo segunduan, buruan sendo zuen erabakia, bihotzeraino jaitsi zaio hargarreneko. Hogeigarrenean biriketaraino hazi da, eta azkenengo segunduan, ezarrian geratu zaio, trabaturik.

Ohekidearen loa benetakoa dela frogatu



Kristina FERNANDEZ

duenean jaiki da ohetik. Kontu handiz egin du mugimendu bakoitza, maindire hotsak salatu ez dezan. Atzoko arropa bera jantzi du. Alkandora ximurtuta dago, baina gaur, horrek ez du axola. Armairutik barruko jantziak, pare bat alkandora eta galtzak hartu ditu. Lanera eramaten duen poltsa berean sartu ditu denak, baita galtzerdi pareta ere. Etxetik irteterakoan hartuko du jaka. Logela eta egongela arteko pasabidean, telefonoaren altzarian egoten den orri sorta eta boligrafoa hartu ditu hurrena.

*Ezin dut egoera hau jasan. Erabaki bat hartu dut...*

Orriak ozta-ozta eman dio. Parean duen ispiluan ikusi du bere aurpegia. Arnasa hartu du, sakon, eta bere islada estaliz bertan itsatsi du idatzitako orritxoak. Markelen gorputzak maindireekin egiten duen marrazkiari azkenekoz begiratu, eta irten egin da etxetik, «gehiago ez itzultzeko» pentsatu du bere baitarako.

Bi hilabete, hiru, urte bat, bi? Zenbat denbora eman ote du "Markel mutil katxarroaren neskalagun gaixoa" izaten? Zenbat denbora beste mingain batek miazkatutako haragia miazkatzen? Zenbat beste ezpain batek bustitako ezpainak musukatzen? Nor ote da gauetan mutila lapurtu dion maitalea? Lankideren bat ote? Bazkaltzen duen tabernako zerbitzaria? Tuntuna! Gau bat bai eta bestea ere bai etxeratu gabe ibili arte ez zuen susmorik hartu. Ez du disimuluan ibili beharrik izan. Erraz jarri dio, eta horrek amorrua zabaltzen dio erraietan, su emandako polboraren antzera. Egia esatera, ez dauka frogarik: Mugikorrean ez dio mezu susmagaririk aurkitu. Inoiz ez du masailean ezpainetako margo izpirik ekarri. Agendan ere ez du aurkitu arrastoa jarraitzeko pistarik. «Ederki moldatu da nazkagarria». Senak ordea ez du sekula engainatu. Ziur dago.

Baina kito! Amaitu da antzerkia, amaitu da Markelekin duela bi urte hasi zuen elkarrizketa. Kalean aurrera ematen duen pauso bakoitzak, orain arteko bizimodutik urrunago sentitu arazten du. Askea da. Bere bizitzaren jabe bihurtu da berriro. Erabakiak hartzeko gai da. Berak erabakiko du hemendik aurrera emango dituen pausoen norabidea.

Tren geltokira iritsi da. Pantaila erraldoiean begiratu gabe leihatilara joan da zuzenean.

—Zein ordutan irteten da hurrengo tren?

—Nora joan nahi duzu? — galdetu dio txartel saltzaileak.

—Berdin zait. Hurrengo tren noiz irteten den jakin nahi dut.

—Hemendik ordu betera irtengo da Barzelonara doan tren.

—Ongi da. Emadazu txartel bat, mesedez. Mugikorraren soinu zalapartatsuak eten du elkarrizketa. Markel da. Deia erantzun gabe moztu dio. Erabakia hartuta dauka. Poltsan sartu du osterako mugikorra. Berriro hasi da joka. Moztu egin dio bigarren aldiz. Ez dago atzera bueltarik. Hirugarrenez Markel deika.

—Andrea, joan-etorrikoa nahi al duzu?

**Leire Zubeldia** 1984an jaio zen Zizurkilan. Kazetaritza lizentziatua da, eta egun, aldizkari batean egiten du lan.